

## Paul Aberasturi Akaiturri

«Lagunekin egotea eta futbolera jolastea gustatzen zait»

# «Aitonaren magia»

### Aitonaren Magia

Udako asteburu eder bat zen, abuztuak 26. Asteburuetan aitona-amonaren etxera joaten nintzen. Nire aiton-amonak baserri batean bizi ziren. Nire aitari, hara joaten zen bakoitzean, haurtzaroko gogorapenak etortzen zitzaizkion burura.

Baserria zahar-zaharra zen, ondoan landa eder bat, koloretako lorez jantzia zeukan. Oiloak aske ibiltzen ziren lurreko zizare edo batek daki zer! mokokatzen, gero arrautza goxoak egiteko. Landaren alboan, ur garbiko erreka-txo, bazterretan, lo-kuluxka bat egiteko leku aproposa zuhaitzez inguratuak zuela.

Hemen naturaz gozatzeko aukera asko zeuden: arnasteko, aire garbia; entzuteko, txorien kantuak, errekaren zurrumurruak; usaintzeko, belarraren usain goxoa; ikusteko, naturaren espresiorik ederrena eta sentitzeko, haizearen ferekak aurpegian eta barruan itzelezko lasaitasuna... Magiaz beteriko inguru honetan beti da errazago bizitzako gauza on guztiez ohartzea.

Heltzen ginenean, amona korrika hurbiltzen zen musuak ematera, aitona ordea, atean geratzen zen ni itxaroten.

Orduan begiarekin keinu egiten zidan. Baserriko atzealdera joateko deialdia zen, txokora. Txokoan elkarrekin egoten ginen kontu-kontari. Egun hartan, lagunekin izandako arazoa kontatu nion. Berak beti zituen aho puntan hitz egokienak ni lasaitzeko, era berean ondo jokatzeko aholkuak ere ematen zizkidan, horiek bakarrik esperientzia luzea ematen duen jakituriaz jakin daitezkeenak:

-"Ez iezaiozu egin inori zuri gustatzen ez zaizuna."

-"Gogoratu, poza eta zoriona, gauzak ondo egitearen ondorioz lortzen direla".

-"Gu gara gure sortea eraikitzen duguna."

-"Zuk besteak errespetatzen badituzu, beraien errespetua lortuko duzu."



Ez dakit nolako MAGIA duen, baina berarekin hitz egin ondoren, nire barnea lasaitasunez bete zen. Berak emandako aholku hauek nire "DISKO GOGORREAN" sartu eta gorde nituen, behar ditudanean gogoratzeko.

Ondoren, amonaren ahotsa entzun genuen, Inazio! Unai! janaria prest dago, Etor-zaitezte! Berehala joan ginen biok, amonaren barazkiak oso goxoak baitira.

Arratsaldea, kantaka eman genuen eta gauean etxera bueltatu ginen.

Oheratu nintzenean hausnartu nuen aitonarekin izan nituen elkarrizketak eta niri ere adineko naizenean berak dakien beste jakitea gustatuko litzaidakela pentsatu nuen.





Jane Garcia Beaskoetxea
«Saskibaloira jokatzea gustatzen zait»

# «Ipuin batean zehar altxorraren bila»

IPUIN BATEAN ZEHAR
ALTXORRAREN BILA

Bazen behin liburuak irakurtzea gustoko zuen neskato bat. Sara zuen izena eta txiki-txikitatik joaten zen liburutegira hainbat liburu irakurtzera.

Egun batean, beste hainbatetan bezala, liburutegira joan zen bere lagunekin batera liburu interesgarri bat aurkitu nahian Han ibili ziren bilatu eta bilatu eta azkenean zerbait aurkitu zuten: "Sara eta altxor ezkutua" izenburutzat zuen liburua. Sara harritute geratu zen bere izena ageri baitzen. Birritan pentsatu gabe liburua irakurtzen hasi zen bere lagunekin batera. Liburua ireki eta... argi misteriotsu bat ikusi zuten, begietako min ikaragarria eragiten zuena. Halako batean, liburuek denek xurgatu egin zituen.

Sara eta bere lagunak istorio horretako pertsonaiak bihurtu ziren liburuaren barruan sartu eta gero. Orduan gogoratu zuen liburuaren izenburuan "Sara" izena ageri zela eta bera izango zela istorioaren protagonista. Berehala, bere lagunekin batera martxan hasi zen altxor ezkutuaren bila. Oihanean zehar zebiltzala otso bat agertu zitzaien eta hauxe esan zien:

– auuuuuuuuuuuu!!! nortzuk zarete zuok?

Haiek bildurtuta:
– ba, ba, ba... gu... Sara eta bere lagunak gara.
Horrela segitu zuten hizketan eta, azkenean, otsoak laguntzea erabaki zuen altxorra aurkitu arte. Oihana zeharkatu ostean, kobazulo ikaragarri handi bat aurkitu zuten. Mutikoek ez zuten sartzerik nahi, baina Sarak eta otsoak bai eta, azken-batean bera zenez protagonista, kobazuloaren barrualderantz abiatu ziren.




Barruan zeudela hartz bat aurkitu zuten lokuluxka eder bat egiten. Lagun taldeak, poliki poliki, aurrerantz egin zuen hartza ez esnatzeko asmoz, baina... hartza oso haserretuta itzartu egin zen. Lagun taldeak azaldu zien zergaitik zebiltzan kobazulo hura zeharkatzen. Hartzak ulertu eta taldera bildu zen.

Denak abiatu ziren altxor misteriotsu haren bila. Sara aurretik zihoan lagunak babestu nahian eta lortu zuen. Lehenengo, sabaitik izotzez estalitako harri bat erori zen. Gero, hegazti zikin eta mingarri batzuk pasatu ziren eta horiek denak ere saihestu zituen Sarak. Bizirik irten ziren kobazulo hartatik. Kanpoan zeudela eta aurrerantza zihoazela, Sarak zerbait distiratsua ikusi zuen mendi tontor batean. Ziur zegoen altxorra han zegoela eta harantz abiatu ziren.

Mendira igotzen hasi bezain laster otsoa erori egin zen. Sara laguntzera jeitsi zen, baina otsoak hankako hezur bat puskatuta zuenez, bertan gelditzeko eskatu zion. Gorantz zihoala, lagunetako bat erori zen. Sara berriz ere laguntzera joan zen eta eskuko hezur bat apurtuta zuela ikusi zuen. Sarak ez zuen nahi hartza eta beste hiru lagunak erortzerik. Orduan, bajatzeko eskatu zien eta azkenik, mendi gailurrera heldu zen erori barik. Bertan altxorra aurkitu zuen eta beste

Guztiei abisua eman eta denak pozik jarri ziren. Bat-batean ipuina amaitu zela konturatu gabe, ipuinetik atera ziren sartu ziren bezala eta, harrezkero, Sara eta bere lagunak egunero joaten ziren liburutegira halako ipuinak aurkitzera. Baina ipuin hura bakarra zen.

GERNIKA LUMO
gure sustraiak

**GERNIKA-LUMOKO UDALA**
Hezkuntza Saila
Euskera Zerbitzua

gernika-lumoko
euskara zerbitzua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**KULTURA SAILA (HPS)**

BFA
DFB

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia